

## ERRENTA AITORPENA KANPAINA

### Prensa oharra Apirilak 15, ONCE elkartean

Nafarroako GKEen Koordinakundeak (CONGDN), Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS Nafarroa), Pobrezaren eta Gizarte-bazterketaren kontrako Nafarroako Sareak, Nafarroako Desgaitasuna duten Pertsonak Ordezkatzen dituzten Entitateen Batzordeak (CERMIN) eta Nafarroako Gurutze Gorriak, hamabigarren urtez, **errenta aitorpenean "gizarte helburuak" laukia aukeratzera** gonbidaten dute, baita gogorarazi nahi izan dute **enpresak marka dezaketela** Gizarte helburuetarako 0'7 laukia haien sozietateen gaineko zerga aitorpenean.

2023. urtea oso urte zaila izan da; izan ere, gizarte- eta osasun-krisiaren ondorioak pairatzeaz gain prezioen igoera eta bestelako guda internazionalak bizi izan ditugu. Horrek larrialdiko egoera areagotu du, nahitaezko lekualdatzeak areagotu, eta zuzenean herritarrei eta kolektibo pobretuenei helarazten zaien krisi ekonomikoa areagotu du. Krisi horrek gure ingurunetik haratago eta desoreka estrukturala bizi dituzten herrialdeetan du eragina.

Nafar herritarrek errenta-aitorpenean helburu sozialetarako laukia markatzean elkarteei ematen dieten ekarpenari esker gauzatzen dira gizarte entitateetako programak eta eguneroko bizitzan desberdinkeria gehien pairatzen dituzten pertsonentzat dira. **Pertsona horiek, izan ere, desabantailatik abiatzen dira eta haiek batez ere ari dira egoera hau pairatzen**, bereziki etxebizitza, osasun, hezkuntza, lan eta beste arlo batzuetan. Horregatik da hain garrantzitsua proiektu horien alde egitea eta haietan inbertitzen jarraitzea, pertsona haien bizitza euskarritu eta laguntzen dutelako.

### 1- ZER DA PFEZ BIDEZKO ZERGA ESLEIPENA?

Urtero, herritarrek haien zergen zati bat nora bideratu erabaki dezakete. Horrela, errenta aitortzea egitean, pertsona bakoitzak erabaki dezake zertara bideratu PFEZ-Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergaren % 0,7a. Hona hemen aukerak:

- **Gizarte helburuak:** gizarteratze arloan, gizarte-ekintzan eta garapenerako nazioarteko lankidetzan ari diren entitateek egiten dituzten programentzat nahiz GKEek garatzen dituzten programa eta proiektuentzat.
- **Eliza:** % 0,7a Eliza Katolikoa diruz mantentzera bideratzeko.
- **Bi aukerak:** aurreko bi laukiak markatzea, bi ekarpenen artean % 0,7 egiteko. (%0,35+%0,35)
- Ez markatu **aukerarik batere**; horrelakoetan, emaitza Nafarroako xede orokorretara bideratuko litzateke.

**Aukera fiskal hori guztia ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legean,** Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzekoan, **arautua dago.**

Garrantzitsua da zehaztea, laukia markatzean, **zergadunek EZ dutela gehiago ordaindu behar aitorpenean, eta gutxiago ere EZ zaiela itzuliko.**

Besterik gabe, beren zergen zati bat zertara bideratu nahi duten erabakitzeko eskubidea erabiltzen ari dira.

## **2- ZER DA SOZIJETATEEN GAINKO ZERGAREN BIDEZKO ESLEIPEN FISKALA?**

Enpresek Helburu Sozialen laukia markatzeko aukera dute Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena egiten dutenean. Nabarmendu behar da enpresak EZ duela gehiago ordaindu behar laukia markatzen badu, bere zergen % 0,7 baino ez duela erabiltzen helburu sozialetarako. Ateratzen den zenbatekoa PFEZaren aitorpenean erabiltzen denari gehitzen zaio, eta modu berean banatzen da, eta kolektibo kalteberekin lan egiten duten gizarte-erakundeen proiektuak aurrera eramateko erabiltzen da. Neurri hau 2022.urtetik aurrera martxan dago.

## **3- ZERTARA BIDERATZEN DA DIRUA?**


Bide horretatik biltzen den dirua pertsona erdigunean jartzen duten programa sozialetara bideratzen da, hau da, pertsonentzat da, eta ez, ordea, erakundeen egitura eta jarduna finantzatzeko. Programa horiek gizarteratze ekintzetan, desgaitasunean, bazterketan, ingurumenean, nazioarteko lankidetzan eta gisako arloetan garatzen dira.

Gizarte helburuetarako laukiaren bidez biltzen den dirua 5 modalitate-proiektutan banatzen da (ikusi 5. Puntua).

#### 4- DATUAK ETA AZKEN URTEETAKO BILAKAERA

Aitortzaile kopurua eta bere aukera lauki bakoitzean.

	2018ko datuak (2019ko kanpaina)		2019ko datuak (2020ko kanpaina)		2020ko datuak (2021eko kanpaina)		2021eko datuak (2022ko kanpaina)		2022ko datuak (2023ko kanpaina)	
	aitortzaileak	ehunekoa	aitortzaileak	ehunekoa	aitortzaileak	ehunekoa	aitortzaileak	ehunekoa	aitortzaileak	ehunekoa
<b>Batere (TXURIA)</b>	101.147	20,20%	109.190	21,70%	112.335	22,20%	117.013	23,00%	122.634	23,60%
<b>Eliza katolikoa</b>	121.269	24,25%	115.428	22,90%	111.532	22,05%	107.844	21,20%	105.524	20,30%
<b>GIZARTE HELBURUAK</b>	<b>236.730</b>	<b>47,30%</b>	<b>236.662</b>	<b>46,90%</b>	<b>237.807</b>	<b>47%</b>	<b>239.678</b>	<b>47,00%</b>	<b>244.814</b>	<b>47,20%</b>
<b>Eliza katolikoa eta Gizarte helburuak</b>	40.854	8,17%	42.624	8,46%	44.041	8,71%	44.975	8,80%	45.590	8,80%
<b>Aitortzaile guztiak*</b>	<b>500.000</b>	<b>100%</b>	<b>503.864</b>	<b>100%</b>	<b>505.715</b>	<b>100%</b>	<b>509.510</b>	<b>100%</b>	<b>518.562</b>	<b>100%</b>



Urteen arabera aukeratutako ehunekoak.

	2022ko datuak						
	AITORTZAILE KOPURUA						
	25 baino gutxiago	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65-74 urte	75 edo gehio
Txurian	80,80 %	50,95 %	20,24 %	12,74 %	9,95 %	7,78 %	9,32 %
Eliza katolikoa	3,01 %	5,52 %	9,32 %	16,93 %	23,58 %	31,22 %	51,87 %
Gizarte helbru.	13,58 %	37,72 %	61,49 %	59,91 %	55,81 %	50,52 %	29,37 %
Biak	2,61 %	5,81 %	8,95 %	10,42 %	10,67 %	10,48 %	9,44 %
<b>GUZTIRA</b>	<b>49.986</b>	<b>63.134</b>	<b>83.714</b>	<b>102.501</b>	<b>87.212</b>	<b>65.308</b>	<b>66.271</b>

Aurreko taula eta grafikoetan adierazten dena kontutan hartuz:

- Helburu sozialen laukitxoak markatu zuten pertsonen ehunekoaren gorakada, % 47,2ra iritsi arte.
- Laukia hutsik, txurian, utzi duten pertsonen kopurua %23,60ra iritsi da, urtez urte gora doan ehunekoa.
- Nafarroako Foru Ogasuna emandako datuen arabera, urteen arabera aukeratutako ehunekoen arabera, 35urteetik beherako pertsonen erdia baino gehio laukia txurian uzten dute.

Garrantzitsua da aztertzea zergatik uzten duten laukia hutsik 122.000 pertsonak baino gehiagok, eta kezka handia adierazi dute, susmoa delako herritarrek ez dakitela beren ekarpenaren % 0,7 nora bideratu erabakitzeko eskubidea dutela.

Herritarrei eta enpresei informazioa ematea gizarte-eragile guztien erantzukizuna da, baita Administrazio Publikoarena ere, eta ahal den neurrian, eskubide hori baliatzeko bideak erraztu behar dituzte.

Horregatik, administrazioak helmugari eta ekarpen horrekin finantzatzen diren proiektu zehatzei buruzko informazioa eman dezala eskatzen dugu, bai gardentasunaren ariketa gisa, bai informazio-, sentsibilizazio- eta kontzientziazio-lan bat egiteko.

## 5- AZKENEKO NAFARROAKO AURREKONTUETAN EMAN DEN GAUZATZEA.

Jasotako azken datuen arabera 2024ko aurrekontuan 12.065.383 euro esleitu behar dira interes sozialeko beste helburu batzuetarako. (11.704.730 € PFEZ, 285.298 € Sozietateen gaineko zerga eta 75.356 Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko jaraunspenetatik').

Diru bilketa bost talde handitan banatu behar da. Nafarroako gobernua, 2024. Urtean, bere aurrekontuetan bost talde handi horiekin arremandutako 16 aurrekontu sail aurkeztu ditu.

TALDEA	BANAKETA	SAILA	%	BANAKETA
1	Elkartasun soziala	Eskubide sozialetako, ekonomia sozialeko eta enpleguko departamentua	30,73	3.7007.692
1	Elkartasun soziala	Etxebizitzako, gazteriako eta migrazio politiketako departamentua	2,53	304.736
1	Elkartasun soziala	Barneko, funtzio publikoko eta justiziako departamentua	1,74	210.456
2	Prestaziorik gabeko langabeak	Eskubide sozialetako, ekonomia sozialeko eta enpleguko departamentua	15,00	1.809.808
3	Garapenerako lankidetzak	Eskubide sozialetako, ekonomia sozialeko eta enpleguko departamentua	30,00	3.619.615
4	Autonomia pertsonalaren legea	Eskubide sozialetako, ekonomia sozialeko eta enpleguko departamentua	15,00	1.809.808
5	Ingurugiroa	Landa garapenerako eta ingurumeneko departamentua	5,00	603.269
	<b>GUZTIRA</b>		100,00	12.065.383

Departamento/Programa/Proyecto/Partida1	Crédito inicial
350002 35200 4819 231900 Fondo 0,7%. Subvenciones a entidades sociales en proyectos de convivencia y sensibilización	213.436
350002 35200 4819 231902 Fondo 0,7%. Subvenciones a asociaciones de personas migrantes para actividades de convivencia	82.500
350002 35200 7819 231900 Fondo 0,7%. Subvenciones a asociaciones de personas migrantes para equipamiento	8.800
740002 74200 4819 456300 Fondo 0,7%. Programas de Medio Ambiente	150.623
740002 74200 7819 456300 Fondo 0,7%. Ayudas a asociaciones en materia calidad del medio natural	162.900
740008 74800 4819 456200 Fondo 0,7%. Educación ambiental, voluntariado, custodia del territorio	289.866
901001 91100 4819 143105 Fondo 0,7%. Cooperación internacional al desarrollo	3.619.615
901003 91600 4819 231504 Fondo 0,7%. Subvenciones para entidades del área de exclusión social y promoción de minorías	997.250
901003 91600 4819 231612 Fondo 0,7%. Subvenciones para programas de empleo comunitario de interés social a través de entidades sociales	1.809.808
920005 93100 4819 231B09 Fondo 0,7%. Entidades del área de personas con discapacidad. Subvenciones Programas	726.870
920005 93100 4819 231B11 Fondo 0,7%. Entidades del área de personas con discapacidad. Subvenciones al funcionamiento	1.428.630
920005 93100 4819 231B12 Fondo 0,7%. Entidades del área de personas con discapacidad. Fomento	324.990
920005 93100 4819 231B35 Fondo 0,7%. Asociaciones de mayores. Subvenciones funcionamiento	624.138
920005 93100 4819 231B36 Fondo 0,7%. Asociaciones de mayores. Subvenciones programas	757.948
920008 93300 4819 231702 Fondo 0,7%. Convocatoria de subvenciones en el ámbito del menor	657.674
F20001 F2400 4819 112104 Fondo 0,7%. Subvenciones a entidades sociales-actuaciones socio educativas con personas reclusas y/o ex-reclusas	210.456
* TOTAL	12.065.504

## 6- ZER EGIN BEHAR DUZU ZURE AUKERA ALDATU NAHI BADUZU EDO LEHEN ALDIZ MARKATZEKO?

2023ko Errenta Aitorpenaren Kanpaina apirilaren 9an hasi zen, eta 2024ko ekainaren 27ra arte iraungo du.

### DATAK ETA TELEFONOAK

Hiru modalitate ezberdinetan aurkeztu daiteke errenta aitorpena: presentzialki, teléfono bidez eta online.

2023ko online kanpaina apirilaren 9an hasi zen Nafarroan, eta aitorpena telefonoz edo aurrez aurre egitekoa apirilaren 15tik aurrera.

Zerga-esleipena aldatu nahi duten pertsonentzat (baita markatutako laukirik ez badago ere), uztailaren 5<sup>a</sup> arte egin dezakete, izapideak honela egin daitezke:

- Modalitate presentziala eta telefonikoa: zergaduna artatzen duten Ogasuneko teknikariei eskatzen zaie aitorpena egiteko.
- Telefonoz: 948 106 106 telefonora deituta.
- Webgunea: (NAN eta PINarekin, ziurtagiri elektronikoarekin edo CI@ve-rekin) Zerga-esleipena modu autonomoan alda daiteke, webgune honetan: <https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/Modificacion-de-la-asignacion-tributaria-0-7-para-fines-sociales>

## 7- SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, dagokion laukian markatu behar da zerga hori izapidetzeko orduan.

## 8- ESKAERAK ETA ALDARRIKAPENAK

Politika fiskala politika ekonomiko eta sozialean eragin handiena duen tresnetako bat dela uste dugu, eta pertsonen bizitzan eragin zuzena eta funtsezkoa duela.

Bidezko zerga-politika eta birbanatze-politika da pertsonen ongizatea bultzatzeko tresnarik onena, oinarriko zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak...) gorde baititzake, behar-beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak merkatzea eta gizarte-babesaren maila egokia bermatzea.

Gure eskaerak berdinak dira oraindik ere:

- Iruzurraren, ihesaren eta elusio fiskalaren aurka borrokatzea, horretarako ardura duten erakundeei baliabideak eta langileak emanaz.

- Zerga-sistema erreformatzea, diru-bilketa handiena eta ahalegin fiskal handiena batez ere ekonomia errearen gain egon ez dadin, eta, beraz, gure lan-errenten eta kontsumoaren bidez, herritartasunaren gain egon ez dadin, finantza-ekonomiaren etekinen eta eragileen gaineko zerga-presio eraginkorra handitu dadin (ez bakarrik nominalki); izan ere, espekulazio hutsagatik, ez du gizarte-aberastasunik sortzen inbertsio produktiboaren eta enplegu-sorreraren bidez.

- Berdintasuna, ekitatea eta justizia soziala sortuko dituen zerga-sistema bat erreklamatzeko dugu.

- Estatuaren tratamendu bera eskatzen dugu; izan ere, zergadunek bi aukerak hautatzen dituztenean, eta hori posible da, Nafarroako Zerga Ogasunak % 0,7 bi aukeren artean banatzen du, eta horietako bakoitzari % 0,35 ematen dio; Estatuan, berriz, % 0,7 ematen zaio lauki bakoitzari (hau da, % 1,4 guztira). Hori dela eta, desabantailan dago Nafarroako herritarrak.

- Gizarte-helburuak laukiko ehunekoaren banaketaren erregulazioari buruzko jarrera honakoa da: ez aldatzea eta ez errespetatzea 7/2009 Legean berretsitakoaren arabera.

---

<sup>i</sup>2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Memoriatik ateratako datuak.